

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2014ko EKAINAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko ekainaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga

Bere ezin etorria azaltzen dute: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea, Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada: **2014ko maiatzaren 8an egindako ohiko bilkura.**
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Aiurri-k "Beterrri-Aiztondoko hamaboskaria"-k eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.
4. Herri Ostatuko kudeaketaren kontratu luzapena, hala bada.
5. 2013 ekitaldiko kontu orokorraren behin betiko onspena, hala bada.
6. Goieneta Goena baserriko terrenotatik pinudia ateratzeko, herri bidearen erabilpen baimena, Central Forestal, S.A.
7. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmenaren onspena, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.
8. Fakturak eta ordainketak.
9. Beste batzuk.
10. Erregu, galderak eta mozioak.

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2014 urteko maiatzaren 8ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

09/2014 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 15ekoa, 2014ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

10/2014 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 23koa, Larraulgo Beobidegain 17 esk. Obra baimenik gabe egindako lanak eteteko agindua ematea, ebazten duena.

11/2014 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 5ekoa, C.T. izenean agertzen diren ibilgailuei ofizioz baja ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

AIURRI-k "BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA"-K EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik 2014 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela "AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria"-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 1.000 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.


Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- "AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria"-ari 2014 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua 1.000,00 eurotako kopuruan onartzea eta ordainketa burutzea, hau da 1.000,00 euro.

BIGARRENA.- 2014ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

HERRI OSTATUKO KUDEAKETAREN KONTRATU LUZAPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko uztailaren 5ean ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Y. P. andreari eman zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 24an egindako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Y. P. andreari urte betez luzatu zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik 2014ko urtarrilaren 16an egindako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Y. P. andreari sei hilabetez luzatu zitzaiola, aurkezturiko ordutegi berria beteko zuela baldintzarekin.

Ikusirik, Y.P. andreak Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketan, 2014ko urtarrilaren 16an eginiko Udalbatzak onarturiko ordutegi berria errespetatu duela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Y.P. andreari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua hiru urtez luzatzea, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.


HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Y.P. andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2013 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2013 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkion.

Ikusirik 2014ko maiatzaren 15ean argitaratu dela iragarkia GAO-n eta jendaurreko epea ireki dela 2014ko maiatzaren 16tik ekainaren 2a bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraultgo Udaleko 2013 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onspena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

GOIENETA GOENA BASERRIKO TERRENOTATIK PINUDIA ATERATZEKO, HERRI BIDEAREN ERABILPEN BAIMENA, CENTRAL FORESTAL, S.A.

Ikusirik Central Forestal, S.A.-ak eginiko eskaera, non Goieneta-Goena baserriko terrenoetatik pinudi bat atera behar duela eta hauek garraiatzeko herri bidea erabiltzeko baimena eskaera egiten du.

Ikusirik 2010eko uztailaren 29an egindako Udalbatzak harturiko erabakia, non Udal jabetzako landa bide eta pisten erabilera berezia erregulatzen duen araudia onartu zen, honen arabera, pinuak ateratzeko baimena ematearekin batera, baimena eskatzaileei, herribideetan sor ditzazketen kalteez erantzutearren berme bat jartzea eskatzea onestu zela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Central Forestal, S.A.-ri Goieneta-Goena baserriko terrenotatik pinudi bat atera behar duenez, hauek garraiatzeko, herri bidea erabiltzeko baimena ematea, betiere lan hauek egiten hasi aurretik, Larraultgo Udaletxean **1.751,68** eurotako fidantza jarri beharko duelarik, herri bidean gerta daitezken kalteei aurre egiteko.

BIGARRENA: Central Forestal, S.A.-ri erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmena prestaturik dagoela, non, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko arauak finkatzen diren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmena onestea, non mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko arauak finkatzen diren.


BIGARRENA: Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu, onartutako hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOMENDI	122,40
FERRETERIA BARBE	130,20
BIXENTE OTEGI LIZASO	24.623,50
LIDOINSA	696,05
AITZOL	64,96
BERRI LANTEGIA	253,05
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.259,39
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.236,31
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.243,82
LASURTEGUI ATXEKI	326,70
GAS NATUTAL FENOSA	190,62
REPSOL	340,89
REPSOL	209,93
MOVISTAR	18,40
MOVISTAR	55,25
MOVISTAR	132,88
MOVISTAR	19,35
MOVISTAR	79,19
MOVISTAR	-10,34



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **30.992,55** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1.LARRAULGO URBELTZ AUZOKO 39-ESKUBIA eta 38 ESKUIN-EZKER ETXEBIZITZETAKO FATXADAK MARGOTU ETA BALKOIAK ETA TXIMINIAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.B.

Ikusirik I.B. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Urbeltz auzoko 39-eskubia eta 38 eskubia-ezkerra etxebizitzetako fatxadak margotzeko eta balkoiak eta tximiniak konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinen kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.

Ikusirik kasu honetan udal baimena gauzatzeko, I.B. jaunak egin behar diren lanen aurrekontu bat aurkezten duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA.- I.B. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urbeltz auzoko 39-eskubia eta 38 eskubia-ezkerra etxebizitzetako fatxadak margotzeko eta balkoiak eta tximiniak konpontzeko obra baimena ematea, ondorengo baldintzak bete beharko duelarik:

- 112/2012-ko ekainaren 26-ko dekretuaren 9º artikulua dioena:

9. artikulua.– Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak.

Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak hauek dituzte:

a) Hondakinen ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan, gutxienez:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.– *Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragotzen baitituzte).*

2.– *Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.*

3.– *Hondakin ez-arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.*

b) Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.

c) Ekoizleak eraikuntza- eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.

- Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

9.2. ARGITERI PUBLIKOA, II.FASEA ALDATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EVE-k diru-laguntzak atera zituela.

Ikusirik Larraulgo Udalari, goian aipaturiko entitateetatik bi diru-laguntza esleitu zaizkiola, Larraulgo Herrian argiteri publikoa aldatzeko.


Ikusirik, Larraulgo Udalak erabaki zuela aipaturiko argiteri publikoaren aldaketa faseka egitea, lehenengo fasea amaituta dagoelarik.

Ikusirik Larraulgo argiteri publikoa, II. Fasea egiteko lanen aurrekontu bat eskatu dela Grupo OIBERDIN-i. Aurkezturiko aurrekontua, 19.743,98 eurotako diru kopurua izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Grupo OIBERDIN enpresari, Larraulgo Argiteri Publikoaren aldaketa, II.Fasea, egiteko lanen esleipena onestea, 19.743,98 diru-kopuruan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- 23.890,22 eurotako gastua onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

10.1.TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA.

Ondorengo mozioa aurkezten da:

Tolosaldea da eskualde bakarra Gestio Publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa ez daukana, nahiz eta horrelako ospitale bat edukitzeko behar beste biztanle izan, 65.000, hain zuzen ere.


Egoera horrek, Osasun eta Kontsumo Sailak berak zabalduko foiletoren bidez aitortutako egoera horrek, ekarri du Tolosaldeak ezin izan duela urtetan baliatu osasun zerbitzuaz Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen baldintza beretan.

Eskualdeko osasun arreta hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak proposatu zuen Tolosaldean berrantolatzea arreta espezializatua 2012ko urtarriletik aurrera. Horrek hauxe zekarren: espezialitateen ambulatortatik espezialistak desagertzeko progresiboki; ospitaleratutako orduan eskualdeko erreferentziazko ospitalea Asuntzio klinika izatea, ezin izango zuelarik Tolosaldeko jendeak Donostia ospitalera jo, berrantolaketa egin bitartean egin izan zuen bezalaxe, hala nahi izan zuenean; eta ospitale zerbitzu berriak martxan jarriko zituztela.

Osasun arretaren berrantolaketa hori pairatu ondoren, TOPA plataformak egindako Herri Ebaluazioaren arabera, hasiera hartan baino okerrago gaude orain: eskualde honetan inoiz ezagutu ez diren itxoin-zerrendak daude; kexa asko; espezialistak ez diren medikuek atenditzen gaituzte; batzuetan botikak eskatzen dizkigute ospitaleratuta dauzkagun familiarterakoak tratatzeko, etab., hau da, jasotzen dugun osasun arreta geroz eta gehiago ari da urruntzen gainontzeko eskualdeetan ematen den zerbitzuetatik, nahiz eta guk haiek bezala ordaintzen dugun.

Gure iritziz, hau guztia dator eskualde honetan gertatzen ari den ospitale zerbitzuen ezkutuko pribatizaziotik, Arreta Espezializatuaren Berrantolaketa dela-eta. Gainera, Tolosaldean egiten ari direna Esperientzia Pilotu bat da, hain zuzen ere, pribatizazio hau etorkizunean aurrera eramateko Euskal Herri osoan.

Horregatik guztiagatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordera jo dugu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabaki dute:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari urtebeteko epean bermatzeko eskualdeko ospitale bat Tolosaldean, Osakidetza sare publikoaren barruan.*
- *Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari mantentzeko eta/edo berreskuratzeko 2011 arte espezialitateen ambulatorioan - Tolosalde osoari begira- funtzionatzen zuten espezialisten kontsultak.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, “Tolosaldea Osasun Publikoaren alde-ko” mozioa bere osotasunean onartzen du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA